

## Lesbianak: konfinatuta baina ikusgai

**Gaur, apirilak 26, lesbianon ikusgaitasun eguna, ez gara kalera aterako. Ez gara kalera aterako konfinatuta gaudelako, baina, gure etxetatik, lesbianak garela eta horrek harrotasunez betetzen gaituela aldarrikatuko dugu.**

Gaur ez gara kalera aterako gure ahotsak altxa eta ikusezinak izateaz nazkatuta gaudela esateko, aske eta eskubide osoko subjektuak izan nahi dugula aldarrikatzeko. Ez dugu lau haizeetara esango **ez garela lagunak, elkar jaten dugula**, baina, hau guztia amaitzen denean, zin egiten dugu gure herriak, hiriak eta plazak hartu eta maitasunez zein errebelldiaz beteko ditugula.

Badakigu egun horretan ez garela denok egongo, gutako batzuentzat ezinezkoa baita ageriko bihurtzea edo manifestatzera irteeta. Isil eta otzan nahi gaituzte, ikusezin, eta arau horiek hausten ditugunean, indarkeriak eta diskriminazioak jasateko arriskua dugu. Hala ere, gogoratu behar dugu ezarritako ikusezintasuna beste indarkeria mota bat dela eta ez gaudela prest egoera hori gehiago jasateko. Horregatik, **argi utzi nahi dugu, guztiok oihu egin ezin dugula jakin badakigun arren, ahal dugunok denon izenean egingo dugula eta egiten jarraituko dugula, guztiok gure gorputzak eta desirak askatasunez bizi ahal izan arte.**

**ALDARTEK**, manifestu honen bitartez, lesbiana horiek guztiak aldarrikatu nahi ditu, bistarazten direnak eta ez direnak. Gure sexualitateak aitortzeko eskatzen dugu, horretarako, gure eskubideak aukera-berdintasunean baliatzea eragozten duten aurreiritziz beteriko testuinguru sexistak baztertuz.

**Apirilaren 26an, lesbiana, irten zure leihora!**

## Lesbianas: confinadas pero visibles

**Hoy, 26 de abril, día de la visibilidad lésbica, no saldremos a las calles. No saldremos porque estamos confinadas pero, desde nuestras casas, reivindicaremos que somos lesbianas y que estamos orgullosas de serlo.**

Hoy no saldremos a las calles para alzar nuestra voz y decir que estamos hartas de ser invisibles, que queremos ser libres y sujetas de pleno derecho. No saldremos a gritar a los cuatro vientos que **no somos amigas, nos comemos el coño** pero, cuando todo termine, prometemos tomar nuestros pueblos, ciudades y plazas y llenarlas de amor y rebeldía.

Ese día sabemos que no estaremos todas ya que para algunas de nosotras no es posible hacerse visible ni salir a manifestarse. Nos quieren calladitas y sumisas, invisibles, y cuando rompemos esas normas, nos exponemos a sufrir violencias y discriminaciones. Aun así, debemos recordar que la invisibilidad impuesta es otra forma más de violencia y que no estamos dispuestas a que nos ninguneen más. Por eso, **queremos dejar claro que, aunque sabemos que todas no podemos gritar, las que sí, lo haremos por todas y lo seguiremos haciendo hasta que todas podamos vivir nuestros cuerpos y deseos con libertad.**

Desde **ALDARTE**, mediante este manifiesto, queremos reivindicar a todas esas lesbianas, las que se visibilizan y las que no. Instamos a que se reconozcan nuestras sexualidades eliminando contextos sexistas y prejuiciosos para el ejercicio de nuestros derechos en igualdad de oportunidades respecto a la población en general.

**Este 26 de abril, lesbiana, ¡sal a tu ventana!**